

## FINANTZA-ERAKUNDEAREN ABALAREN EREDUA (ESLEIPENDUNAREN BEHIN BETIKO BERMEA)

Kreditu-erakunde edo elkarren bermerako sozietate honek: .....—  
IFZ:.....; helbidea: .....—, eta, haren izenean,  
(ahaldunaren izen-deiturak).....jaunak/andreak, zeinek, Gasteizko Udaleko  
Idazkaritzan (noiz:) ..... askietsitako ahalordea dela medio aski ahalmen baitu egintza  
honetan hura horretara behartzeko, egun honetan: .....

### ABALA EMATEN DIO

Abal-jasotzailea (izen-deiturak edo izen soziala): .....;  
IFZ: .....,

(Eratu gabeko aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan): abal-jasotzaileak (izen-deiturak edo izen  
soziala): ....., IFZ: ....., eta  
....., IFZ: ....., BATERA ETA MODU  
SOLIDARIOAN,

betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean —zeinak Espainiako  
ordenamendu juridikora ekarri baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko  
otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak— xedatutakoaren ildotik, obligazio hauei  
erantzuteko: (zehaztu abaldunak bere gain hartutako kontratuaren xedea edo obligazioa eta  
dosier-zenbakia)

.....

Gasteizko Udalaren aurrean, kopuru honetara arte (letraz eta zenbakiz idatzi):

.....

.....

Abala ematen duen entitateak aitortzen du, bere erantzukizunpean, Administrazio Publikoen  
Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 56.2. artikuluan aurreikusten diren betebeharrak betetzen  
dituela. Abal hau behartu nagusiarekiko modu solidarioan ematen du, berariaz uko eginik eskusio-  
eskubideari eta konpromisoa harturik Gasteizko Udalak hala galdatzen duen lehenengo aldian  
ordainduko duela, Administrazio publikoen kontratuen alorreko legedian eta hori garatzen duten  
arauetan aurreikusitako moduan.

Abal hau indarrean egongo da harik eta Gasteizko Udalak edo haren izenean hori egiteko legez  
gaitua dagoenak bertan behera utzi edo itzultzea erabaki arte, Sektore Publikoko Kontratuei  
buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta horren osagarri diren legeetan xedatutakoaren ildotik.

(lekua eta data)

(entitatearen izena)

(ahaldunen izenpea)."

OHARRA: Behin-behineko eta behin betiko bermeen kasuan, baldin eta abala ematen zaion  
entitatea eratu gabeko enpresari-batasun bat bada, ez dira onartuko hura osatzen duten  
enpresetako bat bakarrik bermatzen duten bermeak, baizik eta aldi baterako batasuna  
osatzen duten gainerako enpresak ere bermatu beharko ditu, eta berariaz jaso beharko da  
erantzukizuna baterakoa eta solidarioa dela, gainerako kideekin.